



Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legearen lanketa

Oinarrizko Dokumentua kontrastatzeko prozesua

PARTAIDETZAREN MEMORIA

2021eko abuztua





Aurkibidea

- 1- SARRERA. DOKUMENTU HONEN XEDEA
- 2-TESTUINGURUAN JARTZEA. TRANTSIZIO ENERGETIKOARI ETA KLIMA ALDAKETARI BURUZKO LEGEA LANTZEKO PROZESUAREN TESTUINGURUAN GAUZATUTAKO PARTE-HARTZE PROZESUA
- 3- PARTE HARTZEKO GAITUTAKO KANALAK ETA PARTE-HARTZEAREN ADIERAZLEAK
- 4- JASOTAKO IRITZI ETA PROPOSAMEN NAGUSIAK
- 5- ONDORIOAK. PARTE-HARTZEAREN ERAGINA ETA PROIEKTU HONEN ETORKIZUNEKO PARTE-HARTZE FASEETARAKO GOMENDIOAK

ERANSKINAK

1. eranskina- Tailerretan parte hartu duten eragileen zerrenda
2. eranskina- - Tailer bakoitzean jasotako ekarpenak
3. eranskina- - Tailerren osteko formularioaren bitartez parte hartutako eragileen zerrenda
4. eranskina- - Irekiaren bitartez jasotako ekarpenak

1

Sarrera. Dokumentu honen xedea



Sarrera. Dokumentu honen xedea

Dokumentu honen xedea da jendartean aurkeztea Euskadiko Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legea (aurrerantzean, TEKAL) lantzeko Oinarrizko Dokumentuaren inguruan gauzatutako partaidetza-prozesuan lortu diren emaitzak.

Parte-hartze prozesua esandako araua egiteko hasierako fase batean garatu da; beraz, haren helburua bikoitza izan da:

- Alde batetik, eragileen eta herritarren iritzia haztatzea Eusko Jaurlaritzak Oinarrizko Dokumentuan planteatzen duen proposamenaren inguruan, zeina, funtsean, etorkizuneko Legea gidatu beharko luketen helburuei eta zeharkako printzipioei baitagokie.
- Bestetik, eta nagusiki, Lege horren aurreproiektuak jaso beharko lituzkeen elementuei buruzko ekarpenak modu irekian biltzea.

Arau honen prestaketa-prozesuaren barruan partaidetza noiz planteatu eta gauzatu den (hasierako unea, funtsean, estrategia-arloko gaiei heltzen zaiena) eta gaiaren ezaugarriak zein diren kontuan hartuta, erakunde-, gizarte- eta ekonomia-eragileen partaidetzari garrantzi berezia ematea erabaki da. Horretarako, ikuspegi zabal batetik gai horrekin lotura handiena duten eragileen tipologiak identifikatu dira, modu horretan jatorri eta sentsibilitate guztietako iritzia eta ekarpenak jaso ahal izateko.

Horrez gain, herritarren iritzia ere jaso nahi izan da, zeren eta ulertzen baita herritarrentzat interes handia duen gai batez ari garela; izan ere, etorkizuneko TEKALren xedapenek eta orientabideek, zalantza barik, eragin handia edukiko dute kontsumo- eta bizimodu-ereduetan.

Partaidetza-prozesu honen ikuspuntua, batez ere, baterako sorkuntzekoa izan denez, une honetan ezinezkoa da zehaztea zer-nolako eragina izango duten eragileen eta herritarren iritziek eta ekarpenek Legearen aurreproiektuan. Beraz, eragin horren balorazioa aurreproiektua dagoenean egin beharko da, une horretan aztertu ahal izango baita zein neurritan erantzuten dien prozesu honetan zehar gehienek adierazi dituzten iritzi eta proposamenei.

2

TESTUINGURUA JARTZEA. TRANTSIZIO ENERGETIKOARI ETA KLIMA
ALDAKETARI BURUZKO LEGEA LANTZEKO PROZESUAREN TESTUINGURUAN
GAUZATUTAKO PARTE- HARTZE PROZESUA



Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legea

Eskualdeek eta toki-entitateek hartzen dituzte klima-aldaketa arintzeko neurrien % 70 baino gehiago eta horretara egokitzeko neurrien % 90 ere, halaber, EBko legeria osoaren % 70 aplikatzen dute, hau da, gastu publikoaren heren bat eta inbertsio publikoaren bi heren. Horrenbestez, 2050ean neutraltasun klimatikoa lortzeko helburuak eskualdeen eta toki-entitateen sostengua eta lankidetzara behar ditu.

Egitear dauden aldaketen muntak eta garrantziak justifikatzen dute TEKAL bat onartzeko beharra, EAEko lurraldearen antolamendu juridikoan klima-aldaketaren aldagaia sartzeko eta trantsizio energetikorako oinarri egokiak ezartzeko. Bestalde, nahiz eta trantsizio hori arrakastaz osatu eta berotegi efektuko gasen isurpenetarako proposatutako murrizketa lortu, ebidentzia zientifikoak adierazten du klima-aldaketa hamarkadetan zehar ondorio saihestezinak izango dituen gertakaria dela, eta horrek gizarte osoaren egokitzapen-ahalegina eskatzen du, ondorioen kostua leuntzeko.

Eraldaketa sakon horrek arriskuak eta aukerak sortzen ditu, epe labur, ertain eta luzera, ekoizpenaren, ezagutzaren eta pertsonen gaitasunekin lotuta eta, hortaz, baita euskal gizarteak egokitzeko eta balio ekonomikoa eta ongizate-maila handiagoak sortzeko duen gaitasunarekin ere. Adibidez, enpresa-estrategia berriak eta negozio-eredu berritzaileak, zeintzuek, efizientzia energetikoa eta materialen erabilera hobetuz, produktibitatea areagotu eta karbono-aztarna murriztea lortuko baitute (esaterako, e-fuelak, gas berdeak eta hidrogenoa, mugikortasun-modu berriak, emisio gutxiko prozesuak, industria digitala, lehenengo sektore jasangarria,...).


TEKALK aukera emango du Euskadiko errealitatera eraginkortasunez egokitzeko bai nazioarteko zein estatuko arau- eta legegintza-alorra bai zero emisio garbiko ekonomia baterako trantsizioa egiteko erabiltzeko moduko estrategiak eta tresnak, euskal ekonomiaren errealitatearekin bat datozen plangintza eta ibilbide-orri errealisten esparruan. TEKALK egokitzapen-neurriak jaso behar ditu, inpaktuei aurrea hartzeko eta susperraldia errazteko.

TEKALK lanabesak ematen lagundu behar du, eragile ekonomiko eta sozialek arrisku horiek guztiak modu ezinhobean kudeatu ditzaten, epe laburrean hasita baina epe luzera begira.

Dagoeneko hasi behar da lanean, Euskadiren lehiakideen eta Espainian, Europan eta munduan dituzten enpresen atzetik ez geratzeko. Berandu jarduteak zailtasun handiagoak ekarriko ditu euskal ekonomiaren eta euskal enpresen lehiakortasunari eta herritarren ongizateari eusteko, bai eta beroriek areagotzeko behar den eraldaketa gauzatzeko ere. Eraldaketa erronkarekin batera agertzen zaigu ingurumen-jasangarritasunaren dimentsioa kontuan hartzeak dakarren aukera handia produktibitate tekniko eta ekonomikoan, baita ingurumenekoan ere, hobekuntzak bermatzeko, karbono-aztarna txikiagoa duten materialak, prozesuak, produktuak eta zerbitzuak garatuz eta erabiliz.

Parte-hartzea TEKAL egiteko prozesuaren barruan

Aurreikusita dago parte-hartzea funtsezko elementua izango dela TEKAL egiteko. Ildo horretan, Oinarrizko Dokumentuarekin lotutako prozesua lehenengo mugari handia da Legea landu eta onartzeko fase guztietan bidaide izango den partaidetzaren ibilbidean.



3

PARTE HARTZEKO GAITUTAKO KANALAK
ETA PARTE HARTZEAREN ADIERAZLEAK

Parte hartzeko gaitutako kanalak eta parte-hartzearen adierazleak

Parte hartzeko 3 kanal gaitu dira, ondo bereizitako 2 kolektibori zuzenduta:



ERAGILEAK



HERRITARRAK

EZTABAIDARAKO GUNEA ERAGILEEKIN EGINDAKO TAILERRETAN + TAILERREN OSTEKO ONLINE FORMULARIOA

Gonbidapen bidezko partaidetza da, eta parte hartzeko gonbidapenak bidali zaizkie gai horrekin lotura zuzena duten hainbat izaeratako 80 entitate sozial eta ekonomikori baino gehiagori (hasieran posta elektronikoko bidez, eta hasiera batean izena eman ez zuten entitateei telefono bidezko jarraipena egin zaie), bai eta Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko zenbait sail eta entitatereen ordezkariari eta Udalsarea2030i ere.

Kolektibo “aditu” honen partaidetzarako kanal bikoitza atondu da:

- Eztabaida irekirako tailer bakoitzean atondu den gunea bera, partaidetzarako eta eztabaidarako lehenengo aukera gisa antolatuta.
- Tailerren ostean ekarpenak idatziz egiteko aukera, xede horretarako gaitutako online formulario baten bidez. Gonbidapen hau tailerretan parte hartu duten entitateei nahiz parte hartu ez dutenei bidali zaie, ulertu baita kanal honek partaidetza lasaiagoa eta kolegiatuagoa ahalbidetzen zuela, zeren eta entitate bakoitzean hausnarketa eta barne-eztabaida egiteko aukera ematen baitu.

Tailerretan guztira 87 pertsonak hartu dute parte 59 eragileren ordezkari gisa. Tailerren osteko online formularioei dagokienez, 39 galdetegi jaso dira, Eusko Jaurlaritzako zenbait sailetatik eta entitatetatik zetozen 4 barne

EZTABAIDA IREKIA IREKIAN

Edozein herritarri edo eragileri irekitako eztabaida aurkeztu eta ahalbidetu da Irekiaren bidez.

Eztabaida kualifikatuagoa izan dadin, honako dokumentu hauek argitaratu dira:

- Oinarrizko Dokumentua.
- Klima Aldaketaren aurkako 2050erako EAEko Estrategia (Klima 2050).
- 2030erako Euskadiko Energia Estrategia.
- Eusko Jaurlaritzaren larrialdi klimatikoaren adierazpena.
- Eusko Legebiltzarraren larrialdi klimatikoaren adierazpena.
- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzkoa (estatukoa).
- Hausnarketarako honako gai hauek mahaigaineratu dira:
- Zein neurritan zaude ados Oinarrizko Dokumentuak etorkizuneko Legerako proposatzen dituen HELBURUEKIN?
- Zeintzuk izan behar dira Lege honen bidez ARAUTU BEHAR DIREN FUNTSEZKO GAIK/ERRONKAK?
- Zein TRESNA JASO BEHAR DITU etorkizuneko Legeak euren helburuak lortu ahal izateko?

Proposamen 1 jaso da.

Egindako tailerren informazio orokorra

Guztira, 10 tailer egin dira, denak modu telematikoan, eta hauexek dira parte-hartzearen adierazleak:

EGUNA ETA ORDUA	ENTITATEEN TIPOLOGIA	Parte hartu duten eragileen kopurua	Parte hartu duten pertsonen kopurua
Ekainaren 14an, astelehenean, 11:00etatik - 13:00etara	Udalsarea 2030 Sareko toki-entitateak	14	16
Ekainaren 15ean, asteartean, 9:00etatik 11:00etara	Foru Aldundiak	2	7
Ekainaren 15ean, asteartean, 12:00 etatik 14:00etara	Eusko Jaurlaritzako sailak eta entitateak	7	14
Ekainaren 16an, asteazkenean, 9:00etatik 11:00etara	Orotariko enpresa-elkarteak	4	6
Ekainaren 16an, asteazkenean, 12:00etatik 14:00etara	Energia intentsiboko eta materialak eraldatzeko industriako klusterrak eta enpresa-elkarteak	4	4
Ekainaren 16an, asteazkenean, 15:30etik 17:30era	Ezagutzaren arloko entitate eta pertsona adituak (unibertsitateak, zentro teknologikoak, profesionalen elkargoak, ...) (*)	10	13
Ekainaren 17an, ostegunean, 9:00 etatik 11:00etara	Mugikortasun-sektoreko klusterrak eta enpresa-elkarteak	10	11
Ekainaren 17an, ostegunean 12:00etatik 14:00etara	Lehenengo sektoreko, eraikuntzako eta kontsumoko klusterrak eta enpresa-elkarteak	4	4
Ekainaren 17an, ostegunean, 15:30etik 17:30era	Ingurumenaren babesarekin eta gizarte-garapeneko beste arlo batzuekin lotutako gizarte-entitateak	5	5
Ekainaren 18an, ostiralean, 9:00 etatik 11:00etara	Euskal energia-sektoreko enpresak	6	7
GUZTIRA		65	87

(*) Azkenik, pertsona guztiek eragile baten ordezkari gisa hartu dute parte, eta ez da adituen parte hartzerik izan banakako gisa.

Tailarren osteko formularioa bete duten eragileen profilari buruzko informazioa



4

JASOTAKO IRITZI ETA PROPOSAMEN NAGUSIAK

IRITZIA: Adostasun-maila OINARRIZKO DOKUMENTUAN JASOTAKO HELBURUEI DAGOKIENEZ

Helburua	Oso txikia	Txikia	Ertaina	Handia	Oso handia	Batezbestekoa 1-5eko eskalan
Euskadin neutraltasun klimatikoa lortzea, beranduezez 2050ean, urte horretan berotegi efektuko gasen emisio garbirik egon ez dadin; horretarako, bidezko trantsizio energetiko eta klimatiko bati ekin beharko zaio.	%0	%7	%10	%26	%57	4,3
EAEko lurraldearen erresilientzia handitzea, klima-aldaketari dagokionez	%0	%0	%7	%26	%67	4,6
Deskarbonizazioaren aldeko prozesu guztiak bultzatzea Euskadiko sektore sozioekonomiko guztietan eta jarduera ekonomikoa, enpresen lehiakortasuna, enpleguaren kalitatea eta gizartearen ongizatea handituz	%0	%5	%10	%27	%59	4,4
Trantsizio energetikoaren aukerak aprobetxatzea garapen teknologiko eta enpresarialerako gaitasunak bultzatzeko	%0	%2	%17	%26	%55	4,3



Ekarpinak, 1- Zein BESTE HELBURU ESTRATEGIKORI erantzun beharko lieke Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren euskal Legeak?

OHARRA: Gehien adierazi diren ekarpinak biltzen dira hemen, bai tailerretan bai tailerren osteko formularioaren bitartez jasotakoak. 2. eranskinak tailer bakoitzean jasotako ekarpenen laburpena biltzen du.

- Bada kontzientzia argia erronkak gizartearen sektore ekonomiko eta talde guztiei eragiten diela.
- Energia-kontsumoaren murrizketa funtsezko helburutzat hartzen da, eta, horretarako, apustu egiten da kontsumo-eredu berri baterako estrategia global baten eta energia-eraginkortasun handiago baten alde, bai eta mugitzeko moduak aldatzearen eta kontsumitutako energia batez ere berriztagarria eta karbonorik gabekoa izatearen alde ere.
- Halaber, autohornikuntza behin baino gehiagotan aipatu da, bai eta, energiarako bidezko prezioak lortzeko, komunitate energetikoen eta sektore publikoaren pisu handiagoko ekosistema energetiko berri bat ere.
- Garrantzi berezia ematen zaio kontsumoari. Finkatu behar den kontsumo-eredu berri bat, gure bizi-ereduan aldaketak egiteko.
- Karbono-aztarna murrizten laguntzeko ekodiseinuak eta ekonomia zirkularrak duten garrantzia nabarmendu da, bai eta biomaterialek, autohornikuntza energetikoa sustatzeak,... dutena ere.
- Bidezko trantsizioaren eta gizarte-inklusioren (inor atzean ez uztea) helburua erdigunekoa eta zeharkakoa izan behar da, bereziki enpresa txikiei eta gizarte-sektore babesgabeen dagokienez. Bada aipamenik ahultasun energetikoari buruz, konpondu beharreko arazo gisa ikusita.
- Ez dago adostasunik gizarte-kolektiboen artean helburu sektorialak ezartzearen komenigarritasunari buruz, baina enpresek ikuspuntu sektorializatuagoa daukate helburuak zehaztean, eta apustu egiten dute helburuak inguruabarrei egokitzearen eta kasu eta sektore bakoitzean erronka eta mugari errealistak ezartzearen alde.
- Adostasun orokortua antzematen da tarteko helburu neurgarriak ezartzearen komenigarritasuna dela-eta, aurrerapenak agerian uzteko eta bilakaeraren jarraipena egin ahal izateko, baina, betiere kontuan hartuta helburuak malguak eta unean uneko errealitate teknologikora moldatuak izan behar direla.
- Enpresen eta zentro teknologikoen bidez I+G, ekintzailletza eta laguntza-zerbitzuak babestea funtsezkoa da ekoizpen- eta kontsumo-eredu berri honen aukerak aprobetxatuko dituzten sektore lehiakorrei eusteko.
- Energia- eta ekoizpen-eredu berri horrek eskaintzen dituen kalitatezko enplegu-aukerak aprobetxatzearen aldeko apustua egiten da.
- Bada aipamenik lurraldeari eta, batez ere, landa-eremuari begirunea edukiko dien garapen-eredu berri baten alde.
- Herritarrak ahalduztearen aldeko apustua egiten da, aurre egin behar diogun erronkaren garrantziaz jabetu daitezen sustatuz, bai eta “erantzukidetasuna”ren aldekoa ere, funtsezko jokabide-printzipio gisa.
- Eragileak eta herritarrak elkarrekin bat etortzea bera helburutzat jotzen da.

Ekarpenak, 2- Zein HELBURU ETA MUGARRI KUANTITATIBO GLOBAL ezarri beharko lituzke Legeak?

OHARRA: Gehien adierazi diren ekarpenak biltzen dira hemen, bai tailerretan bai tailerren osteko formularioaren bitartez jasotakoak. 2. eranskinak tailer bakoitzean jasotako ekarpenen laburpena biltzen du.

- Nolabaiteko “berdinketa” gertatu da bi jarreraren artean:
 - Alde batetik, badago jarrera bat Europako konpromisoetatik eta Estatuko legeetatik ondorioztatzen direnak baino asmo handiagoko helbururik ez ezartzearen aldekoa dena. Jarrera horren arabera, noizbait asmo handiagoko helburuei ekingo balitzaie, babes-neurri espezifikoek lagunduta egin beharko litzateke gure sektore ekonomikoen lehiakortasuna kolokan ez jartzeko.
 - Bestetik, asmo handiagoko jarrera bat dago, konpromiso europarrak gainditzen dituzten helburuak hartzearen komenigarritasuna adierazten duena.
- Hainbat helburu-proposamen jaso dira CO2 eta BEGren isurpenekin eta energia-kontsumoarekin lotuta, bai eta energia berriztagarriak erabiltzearekin ere.
- Badaude zenbait ekarpen helburu global horietarako tarteko helburuak ezartzearen komenigarritasuna adierazten dutenak. Horrelako ekarpen gehienek aipatzen dute 2030era eta 2040ra begirako helburuak ezartzearen komenigarritasuna. Haratago ere badoa ekarpenen bat eta bost urteko helburuak proposatzen ditu. Oro har, tarteko helburu horiek orientagarriagoak izan behar dutelako iritzia dago, eta adierazleen benetako bilakaeraren arabera modulatu ahal izango liratekeela pentsatzen da.



Ekarpenak, 3- Zein BETEBEHAR/KONPROMISO ezarri beharko lituzke Legeak SEKTORE/ERAGILE ZEHATZENTZAT? Nolakoa izan beharko litzateke deskarbonizazioa sektore jakin batzuetan? Zer motatako ibilbide-orri sektorialak zehaztu beharko lirateke?

OHARRA: Gehien adierazi diren ekarpenak biltzen dira hemen, bai tailerretan bai tailerren osteko formularioaren bitartez jasotakoak. 2. eranskinak tailer bakoitzean jasotako ekarpenen laburpena biltzen du.

- Ekarpen orokor gisa, sektoreen deskarbonizaziorako ibilbide-orriak ezartzearen aldeko apustua egiten da. Ibilbide horiek neurketa-tresnetan oinarritu beharko lirateke, denbora-eszenatoki desberdinei begirako plangintzak egin ahal izateko eta beharrezko neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko.
- Ikuspegi global horretaz gain, ibilbide-orri edo konpromiso zehatzak proposatzen dira honako sektore hauentzat (hainbat eragileren aldetik adostasun handiagoa azaltzen duten ekarpenak biltzen dira hemen):
 - Garraio-sektorea, 2040. urtea aipatzen da emisioetan murrizketa nabarmenak lortzeko eta garraio-bide jasangarriagoen (trena) aldeko apustua egiteko horizonte gisa.
 - Etxebizitza-sektorea, eraikitako parkea birgaitzeari lotuta, batez ere.
 - Energia-ekoizleak, energia berriztagarriak sortzeko konpromiso zehatzak adierazita.
 - Energia-kontsumo intentsiboko industria.
 - Administrazioa, birgaitze energetikoari dagokionez.
 - Udalerrak, mugikortasunari dagokionez.
 - Lehenengo sektorea, berotegi efektuko gasen murrizketa nekazaritza eta abeltzaitza ekologikoa areagotzearekin lotuta.



Ekarpenak, 4- Oinarrizko Dokumentuan adierazitakoez gain, zein BESTE ZEHARKAKO PRINTZIPIO jaso beharko lituzke Legeak?

OHARRA: Gehien adierazi diren ekarpenak biltzen dira hemen, bai tailerretan bai tailerren osteko formularioaren bitartez jasotakoak. 2. eranskinak tailer bakoitzean jasotako ekarpenen laburpena biltzen du.

- Zeharkako printzipio ugari mahaigaineratu dira. Adostasun handiena bildu dituztenak jasotzen dira hemen:
- Bidezko trantsizioa.
- Etorkizuneko arauak aipatzen dituen elementuen arteko ikuspegi integratua (trantsizio energetikoa eta klima-aldaketa).
- I+G sustatzea.
- Osasunarekiko lotura.
- Tresna ekonomikoak, eta pizgarriak emateko eta finantzatzeko tresnak modernizatzea.
- Ekonomia zirkularra sustatzea.
- Enpleguari eta industria-ehunari eustea.
- Enpresa txiki eta ertainak babestea.
- Ekintzailletza bultzatzea.
- Pobrezia energetikoaren aurka borrokatzea eta hornikuntza bermatzea. Autokontsumorako eta autohornikuntzarako eskubidea.
- Kontsumo arduratsua.
- Neutraltasun teknologikoa.
- Maila anitzeko gobernantza eta lankidetzak publiko-pribatua.
- Jarduera-sektoreak digitalizatzea.



Ekarpenak, 5- Zein PLANGINTZA-tresna jaso beharko lituzke Legeak nahitaez?

OHARRA: Gehien adierazi diren ekarpenak biltzen dira hemen, bai tailerretan bai tailerren osteko formularioaren bitartez jasotakoak. 2. eranskinak tailer bakoitzean jasotako ekarpenen laburpena biltzen du.

- Iritzi desberdinak antzeman dira gai horren inguruan:
 - ❑ Alde batetik, ez dago erabateko adostasunik arauak plangintzarako tresna zehatzik ezarri beharko lukeen ala ez erabakitzeko; izan ere, zenbait eragile ahalik eta malgutasun handienaren aldekoak dira. Horrek ez du esan nahi plangintzaren beharra baloratzen ez denik, baina zalantzak agertzen dira etorkizuneko legean tresna espezifikoak zehaztearen egokitasunari buruz. Edonola ere, tresna-mota horien diseinua errealismoan oinarritu behar dela defendatzen da, helburu argiak zehaztuta (funtsean, ibilbide-orri gisa) eta plangintza gaurkotzeko oinarria izango den ebaluazio zorrotza berekin dakarren gobernantza-eredu egoki bat finkatuta. Gainera, zeharka eta dauden plangintzen eta planen arteko sinergiak aprobetxatuz lan egiteko beharra adierazi da, Legearen inplikazioetara egokitzeko beharrezko neurriak txertatu daitezzen. Hala ere, plangintza-arloko sinergia horiek galga ere izan daitezke eredu- eta kontzeptu-aldaketarako.
 - ❑ Arauak tresna zehatzak jasotzea proposatzen duten eragileek honakoak aipatzen dituzte garrantzitsuenak direlakoan:
 - ✓ Klima eta energiari buruzko planak. Zenbait eragileren esanetan plangintza-tresna horiek udal/ eskualde mailan garatu beharko lirateke.
 - ✓ Plangintza energetikoa.
 - ✓ Lurralde Plan Sektorialak
 - ✓ Trantsizio energetikorako eta klima-aldaketarako irizpideak txertatzea hiri-antolamenduko planetan.
- Plan horiek urteko jarraipen-txostenak barne hartu behar dituztela adierazi da. Halaber, planok estrategikoak badira eta epe luzerako plangintza osatzen badute, euren helburuak aldizka berrikustearen aldeko apustua egiten da (5 urtez behin, adibidez).



Ekarpenak, 6- Zer tresna jaso beharko lituzke Legeak HELBURU ETA NEURRI SEKTORIALEI dagokienez?

OHARRA: Gehien adierazi diren ekarpenak biltzen dira hemen, bai tailerretan bai tailerren osteko formularioaren bitartez jasotakoak. 2. eranskinak tailer bakoitzean jasotako ekarpenen laburpena biltzen du.

3. galderan jasotako ekarpenez gain (Zein BETEBEHAR/KONPROMISO ezarri beharko lituzke Legeak SEKTORE/ERAGILE ZEHATZENTZAT? Nolakoa izan beharko litzateke deskarbonizazioa sektore jakin batzuetan? Zer motatako ibilbide-orri sektorialak zehaztu beharko lirateke?), honako tresna hauek aipatu dira sektoreen deskarbonizazioaren ibilbide-orriei dagokienez:

- Kontratazio publiko berdea.
- Finantziazio berdea.
- Fiskalitate berdea.
- Eraldaketa eta egokitzapen sektorialeko kontratuak.



Ekarpenak, 7- Zer tresna jaso beharko lituzke Legeak BIDEZKO TRANTSIZIORAKO ETA HORI FINANTZATZEKO NEURRIEI dagokienez?

OHARRA: Gehien adierazi diren ekarpenak biltzen dira hemen, bai tailerretan bai tailerren osteko formularioaren bitartez jasotakoak. 2. eranskinak tailer bakoitzean jasotako ekarpenen laburpena biltzen du.

- Fiskalitatea jarduteko tresna garrantzitsutzat jotzen da, baina, aldi berean, eraginkorra izan dadin, zerga-ereduaren aldaketa sakona izan behar dela adierazi da.
- Aipamen asko daude fiskalitate berdeari buruz, horrek pizgarri-tresna gisa funtzionatu behar duela ulertuta, bai eta birbanaketa-tresna gisa ere, inbertsio gehiago beharko dituzten kolektiboen (pertsonek, sektoreak, enpresak) trantsizio-prozesuak babesteko.
- Finantziarioa nahikoa izan behar da, batez ere arrisku handiena duten sektore eta eragile-motetarako (adibidez, ETEentzat eta gizarte-kolektibo babesgabeentzat).



Ekarpenak, 8- Zer tresna jaso beharko lituzke Legeak EGOKITZAPEN-NEURRIEI dagokienez?

OHARRA: Gehien adierazi diren ekarpenak biltzen dira hemen, bai tailerretan bai tailerren osteko formularioaren bitartez jasotakoak. 2. eranskinak tailer bakoitzean jasotako ekarpenen laburpena biltzen du.

- Azpiegitura berdeak.
- Epe luzerako baso-politika jasagarriak.
- Nekazaritza ekologikorako trantsizioa.
- Karbono-isurbideak.
- Uraren kudeaketa.
- Hiri-eredu trinkoa eta erabilera-nahasketaduna, lurzoru gehiago kontsumituko ez duena.
- Etorkizuneko arrisku klimatikoen kontzeptua txertatzea politika publikoen planak egitean.
- Ecological Fiscal Transfers. Finantziario handiagoa ingurumen-jarduera hobea dutela frogatzen duten administrazioetarako.



Ekarpenak, 9- Zer tresna jaso beharko lituzke Legeak ENPRESA GARAPENeko AUKERAK APROBETXATZEKO PIZGARRIEI dagokienez?

OHARRA: Gehien adierazi diren ekarpenak biltzen dira hemen, bai tailerretan bai tailerren osteko formularioaren bitartez jasotakoak. 2. eranskinak tailer bakoitzean jasotako ekarpenen laburpena biltzen du.

- Laguntza publikoak oso beharrezkoak izango dira. Nahikoak izan behar dira, baina, batez ere, une egokian heldu behar dira. Nabarmen hobetu behar dira laguntzak kudeatzeko prozedurak. Halaber, ezinbestekotzat jotzen da aurrekontu-esparru egonkorra izatea, ezarritako helburuak lortzeko egin behar diren inbertsioetarako segurtasuna eta aurreikusgarritasuna bermatzeko.
- Zenbait tresna zehatz aipatu dira, hala nola sektorekako lankidetzak-hitzarmenak, babes handiko laguntzak inbertsio handiak behar dituzten jarduera-tipologietako proiektu pilotuak garatzeko edo karbono-pull bat eratzea euskal enpresentzat.
- Honako lehentasun hauek mahaigaineratu dira:
 - Zirkularitaterako laguntzak.
 - ETE-etarako laguntzak.
 - Ekintzaile gazteentzako laguntzak.
 - Ingurumen arloko I+G+Brako laguntzak
 - Efizientzia energetiko handieneko eraikuntza sustatzeko pizgarriak.



Ekarpenak, 10- Zer tresna jaso beharko lituzke Legeak HEZKUNTZARI, IKERKUNTZARI ETA BERRIKUNTZARI dagokienez?

OHARRA: Gehien adierazi diren ekarpenak biltzen dira hemen, bai tailerretan bai tailerren osteko formularioaren bitartez jasotakoak. 2. eranskinak tailer bakoitzean jasotako ekarpenen laburpena biltzen du.

- Bat-etortze argia dago maila guztietan materia honetako prestakuntza nabarmendu beharri buruz. Hasteko, hezkuntza- curriculum barruan klima-aldaketari buruzko gaia sartu behar da eta, era berean, trantsizio energetikoarekin eta klima-aldaketarekin lotutako lanbide-heziketa eta unibertsitate-ikasketak indartu behar dira. Gazteenen kasuan, prestakuntza hori funtsezkotzat jotzen da kontsumo-eredu berriak sustatzeko.
- Halaber, prospektiba eta jarraipena ere aipatzen dira arlo honetan enplegu- eta gaitasun- eskaintzaren eta -eskaeraren artean gerta daitezkeen arrakalak aztertzeko.
- Era berean, apustu argia egiten da herritarrak oro har hezi eta sentsibiltzatzearen alde, hezkuntza-esparru formaletik haratago.
- Ekintza proaktiborako lanabesak txertatzearen aldeko apustua ere egiten da, ekintzailetzako ideiak eta proiektuak indartzeko, gazteen artean batez ere.
- I+G+Bren finantziarioari dagokionez, finantziario-esparru egonkor baten alde (urte anitzeko finantziarioa) egiten da apustu, bai eta TLR baxuak zein TLR altuak finantzatu ditzaketen finantziario-mekanismo eboluzionatuen alde ere. (*)
- Monitorizazioaren garrantzia nabarmendu da, neutraltasun klimatikoaren helburuak betetzen ari diren zehazteko, horretarako, gainera, behar adina baliabide behar dira, behar bezala koordinatuta.

() TRL (ingelesez, Technology Readiness Level) teknologia baten heldutasun-maila neurtzeko modu onartua da. Beraz, teknologia jakin bat bezala ulertu eta TRLari edo aurkitzen den mailari buruzko informazioa badaukagu, haren heldutasun-maila zein den jakin dezakegu. TRLak 0tik 10era bitarteko eskalan kokatzen dira, 0 maila ideia bati dagokiona, eta 9. maila kontsumorako komertzialki eskuragarri dagoen aplikazio edo "hedapen" bati dagokio.*



Ekarpenak, 11- Zein tresna jaso beharko lituzke Legeak GOBERNANTZARI dagokionez (koordinazioa eta lankidetzaz; jarraipena eta ebaluazioa; partaidetza, gardentasuna eta kontuak ematea)?

OHARRA: Gehien adierazi diren ekarpenak biltzen dira hemen, bai tailerretan bai tailerren osteko formularioaren bitartez jasotakoak. 2. eranskinak tailer bakoitzean jasotako ekarpenen laburpena biltzen du.

- Gobernantza ezinbesteko elementutzat jotzen da eta eragile guztiak hartu behar ditu barnean, baina tresna bizkorak erabiliz, ez formalegiak. Eragile batzuek apustu egiten dute hainbat esparrutan mekanismo edo tresna zehatzak sortzearen alde, beste batzuen ustetan, berriz, tresna berriak sortzeak zentzua du soilik egungo tresnak nahikoak ez direlako segurtasun osoa izanez gero.
- Herritarren parte-hartzea sartu behar da, baina, bereziki, gardentasuna eta kontuak ematea, kontuan hartuta prozesu horrek gure bizimoduan aldaketak beharko dituela.
- Garrantzi berezia eman behar zaio monitorizazioarekin eta ebaluazioarekin zerikusia duen guztiari, batez ere klima-aldaketaren ondorioei dagokienez, baina, baita udal- eta sektore-mailako adierazleei dagokienez ere. Ebaluazio-jarduera zorrotza, objektiboa eta independentea (baita kritikoa ere) izatearen garrantzia azpimarratu da.
- Eragileen arteko lankidetzak TEKAL bultzatutako lan-eredu bilakatu behar da, lankidetzak gainerako eragileen prozesuak aberastu ditzan. Lankidetzak ikuspuntu zabal batetik ulertzen da, bai eragileen arteko lankidetzari dagokionez (publiko-publikoa, publiko-pribatua, pribatua-pribatua) bai erakundeen barruan barne-mailako lankidetzari dagokionez ere. Maila anitzeko gobernantza-eredu baten alde egiten da apustu.
- Berariaz aipatu da TEKALren beraren gobernantza-eredu bat zehazteko beharra.

5

ONDORIOAK. PARTE-HARTZEAREN ERAGINA ETA PROIEKTU HONEN
ETORKIZUNeko PARTE-HARTZE FASEETARAKO GOMENDIOAK



Ondorioak. Parte-hartzearen eragina eta proiektu honen etorkizuneko parte-hartze faseetarako gomendioak

1. Eragileen parte-hartzea egokituz jo daiteke, bai ikuspuntu kuantitatiboaren aldetik bai kualitatiboarenetik. Profil guztietako eragile-kopuru handiak hartu du parte eta ekarpenen maila oso ona izan da, tailerretan bertan jasotakoei dagokienez nahiz tailerren osteko formularioaren bidezkoiei dagokienez. Proposamen ugari jaso dira eta Legearen aurreproiektua idazteaz arduratzen den taldeak aztertu beharko ditu. Aitzitik, herritarren parte-hartzea txikia izan da, ekarpen bakar bat jaso baita Irekiaren bitartez.
2. Herritarren aldetik izandako partaidetza txiki hori ulergarria izan daiteke partaidetza-prozesu hau TEKAL egiteko prozesuaren zein unetan gauzatu den kontuan hartuta. Prozesuaren diseinuan bertan erabaki zen herritarren parte-hartzerako unerik egokiena jendarteko informazioaren izapideari zegokiola, behin baterako sorkuntzako ariketa honetan parte hartu duten adituen ekarpenak aztertuta eta txertatuta eta, gainera, kontuan hartuta herritarren iritzia jaso izan zela jadanik 2021eko maiatzean Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako “Klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko azterlana”ren bitartez.
3. Memoria hau idazteko momentuan, ezinezkoa da baloratzea zer-nolako eragina izango duen eragileen partaidetzak aurreproiektu horretan. Hori dela-eta, gomendatzen da aurreproiektuarekin batera eranskin bat aurkeztea, zein eduki dagozkien prozesu honetan jasotako ekarpenei eta zein beste ekarpen ez diren txertatu jakiteko, sartu ez izana behar bezala justifikatuta.

ERANSKINAK

1.eranskina

Tailerretan parte hartu duten eragileen zerrenda



UDALSAREA 2030 SAREKO TOKI-ENTITATEAK

Abanto-Zierbena
Arrasate
Balmaseda
Basauri
Beasain
Bergara
Errenteria
Laia Koop. Elkarte Txikia
Legutio
Mungia
Ordizia
Sestao
UGGASA
Urduña

FORU ALDUNDIAK

Bizkaiko Foru Aldundia:

- Ingurumen Zuzendaritza
- Iraunkortasun Zuzendaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia:

- Ingurumen Zuzendaritza
- GHK-Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa



EUSKO JAURLARITZAKO SAILAK ETA ENTITATEAK

Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetza

Ingurugela-CEIDA (Ingurumen eta Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiak)

Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Sailburuordetza

Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza

Industria Sailburuordetza

Lanbide Heziketako Sailburuordetza

Osasun Sailburuordetza

ENPRESA-ELKARTE OROKORRAK

Cebek

Confebask

Mondragon Taldea

Konfekoop



ENERGIA INTENTSIBOKO ETA MATERIALAK ERALDATZEKO INDUSTRIAKO KLUSTERRAK ETA ENPRESA-ELKARTEAK

Aclima
Euskadiko Paper Klusterra Elkartea
Fagor Industrialia
Siderex, Siderurgiaren Klusterra Elkartea

EZAGUTZAREN ARLOKO ENTITATE ETA PERTSONA ADITUAK (UNIBERTSITATEAK, ZENTRO TEKNOLOGIKOAK, PROFESIOALEN ELKARGOAK ...)

Azti
Basque Centre for Climate Change (BC3)
Mendi Ingeniarien Elkargoa
Euskadiko Biologoek Elkargoa
EHU/UPV
Neiker
Orkestra-IVC
Tecnalia
Tecnum, Nafarroako Unibertsitatea



MUGIKORTASUN-ARLOKO KLUSTERRAK ETA ENPRESA- ELKARTEAK

Bizkaiko Kontzesionarioen Elkarte
Bizkaiko Tailerren Elkarte
Transitarioen Elkarte
CEBEK
Mugikortasun eta Logistikako Klusterra
Bizkaiko gasolina-zerbitzuguneak
Euskal Herriko Itsas Foroa
HEGAN
MAFEX
Uniport Bilbao

LEHEN SEKTOREKO, ERAIKUNTZAKO ETA KONTSUMOKO KLUSTERRAK ETA ENPRESA-ELKARTEAK

Aclima
Ascobi-Bieba, Bizkaiko Etxegileen eta Higiezin Sustatzaileen Elkarte
Eraikune
Konfekoop (nekazaritza-sektoreko dibisioa)



INGURUMENAREN BABESAREKIN ETA GIZARTE-GARAPENEO BESTE ARLO BATZUEKIN LOTUTAKO GIZARTE-ENTITATEAK

Basogintza Elkartea
Neguko kirolen Elkartea
Eguzki Talde Ekologista
Hirukide
Sareen Sarea

EUSKAL ENERGIA SEKTOREKO ENPRESAK

Bahía Bizkaia Gas
Euskadiko Energia Klusterra
Goener
Petronor Norte
Telur
Zabalgarbi

2.eranskina

Tailer bakoitzean jasotako ekarpenak

UDALSAREA 2030 SAREKO TOKI-ENTITATEETAKO klusterren eta enpresa-elkarteen ekarpenak (1. tailerra)

EREMUA	EKARPENAK
Helburuak eta printzipioak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Europako helburuak eta hartutako konpromisoak jaso beharko dira, besteak beste, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legean ezarritakoak. ▪ Non geratzen dira pertsonak? Trantsizio justua ezin da bigarren mailan geratu. Herritarren ahalduntzea (eta erantzukizuna) ezartzea helburu gisa. Pertsonak aldaketaren partaide izan behar dira ▪ Mugikortasunarekin zerikusia duen guztia helburu handi batean bateratzea. Flotak berritzea bigarren mailakoa izan beharko litzateke. Helburu Nagusia alferrikako joan-etorriak saihestea izan behar da, antolamendu eta kultura-aldaketa gisa bideratuz. ▪ Sorkuntza dezentralizatuak eredu aldaketaren helburu eta trakzio elementu izan beharko litzateke, makro sareen galerak murriztea ahalbidetzen duelako. ▪ Oinarrizko Dokumentuan jasotako helburuetan ondasunen ekoizpenaren eraginkortasuna aipatzen da, baina kontsumoari buruzko aipamen zehatzagoa egin beharko da. ▪ Udal-mailan emisio helbururik ez ezartzea, udalen eragin-ahalmen mugatua dela eta, erantzukizun indibiduala funtsezkoa den eremu batean.
Plangintza-tresnak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Udalerrii begira, Klima eta Energia Plan propioa izatera behartu beharko litzateke. ▪ Energia Jasangarrietarako Ekintza Planetatik (EJEP), Klimarako eta Energia Jasangarriarako Planetara (KEJP) igarotzea.
